



Tolosako Alardea



Zer behar izaten dugu egiteko?

Nork ematen du baimena?

Alardea egiteko Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztaren Birsorkuntza Historikoetarako baimena behar dugu.

Zer gertatu da aurten?

2023an eman zuten, baina 2024rako aldaketak eskatu dituzte, 2017an sortutako lege berrian oinarrituta



Legea berria

2017/853 del Parlamento Europeo



Zer

Delituzko helburuekin armak behar ez bezala erabiltzeari aurre egiteko Europako Parlamentuak zehaztutako LEGEAK aldaketak izan ditu.

Zergatik

Zenbait atentatu terrorista egon dira tradiziozko arma mota hauekin, hala nola, Parisen 2015ean. Fogeoko armak manipulatu zituzten.

Zer dio

Hori eragozteko neurriak hartzea eskatu dute, baita ikuskizun historikoetan erabiltzen diren armen kasuan ere. Nahiz eta detonadoreak izan, eta jarduera historikoa izan.

Nola

Arriskugarritasun egoeragatik, eta gizartearen babesa interes pribatuen gaineratik dagoela gaineratzen du legeak.

Arau berriak

Zer eskatzen digu edo nola eragiten digu?



Protokoloa

Armen Erregelamenduan sartu diren berrikuntzen artean, salbak eta armak baliogabetzeko protokolo berria dago.

Erabilera bakarra

Arma mota bakoitza jarduera jakin baterako eskuratu daiteke eta erabili daiteke bakarrik. Gure kasuan, ekainaren 24ko alarderako bakarrik erabili ditzakegu alardeko eskopetak (ezin da beste jarduera batean erabili).

Armen kontrola

Jarduera historikoetan (gure kasuan) parte hartzen duten armak kontrolpean izan nahi dituzte, bai Guardia Zibilia, baita Gobernu Zibilak ere. Bestela, ez da baimenik izango, eta jarduera egiteko baimenik ez badugu ezingo genuke alarderik izan.

Arau berriak

Zer eskatzen dio udalari



Segurtasun-plana

Segurtasun-neurriak zorroztea desfilean, ordutegi zehatza betetzea armen erabilerarekin, armak erabiliko diren ibilbidea zehaztea, eta salben tiroak erregulatzea

Jarraipena

Armak eraman eta erabiliko dituztenek jarrera eredugarria eta egokia izango dutela kontrolatzea.

Erregistroa

Konpainietako kide guztien armak erregistratzea Gobernu Zibilean maiatzerako.

Asegurua

Istripuetarako aseguru eta erantzukizun zibileko aseguru izatea.

Arau berriak

Zer eskatzen die konpainiei
eta eskopetariei



Ordutegia

Ordutegi zehatza
armak erabiltzeko.
Ordutegi ofizialetik
kanpo ezingo dira
armak kalean erabili.

Armak jaso

Armak jaso egin
beharko dira
arratsaldeko
20:30erako.

Ibilbidea eta salbak

Zehaztutako lekuetan
bakarrik botatzea salbak.
Erabat debekatuta
egongo da leku horietatik
kanpo tiroak botatzea.

Baimenak

Dagokion erabilera-
baimena eta arma-
lizentzia eskuratua izatea
arma daraman partaide
bakoitzak. Ez duenak
ezingo du atera.

Arau berriak

Zer egin behar duzu eta nola?



Baimen orria bete

Partaide bakoitzak Tolardea elkartearen jardueran (alardean) baimen orria bete beharko du, eta bere konpainiako kapitainari entregatu. Konpainitik bidaliko dizuete.

Nola erregistratu


Arma nola erregistratu behar diren, partaide bakoitzak bere kapitainarekin lotu beharko du nola eta noiz egin.

Arau berriak

Ziurtagiria

Bakoitzak bete beharrekoa

Hau da eskopetari bakoitzak bete beharko duen ziurtagiria. Konpaini bakoitzeko kapitainak helaraziko dizue.



CERTIFICADO DE PARTICIPACIÓN

Tolardea, Tolosako alardearen elkarte con CIF: G13851274, domiciliado en Rondilla kalea 31 de Tolosa y como organizadora del alarde de San Juan

CERTIFICA QUE:
D./Dña _____ con DNI _____ y con escopeta de fogeo registrado con el número _____ va a participar en el alarde de San Juan, como integrante de la compañía _____.


Para que conste.

PARTE-HARTZE ZIURTAGIRIA

Tolardea, Tolosako alardearen elkarte IFK: G13851274; helbidea: Rondilla kalea 31 Tolosa eta San Juanetako alardearen antolatzailea gisa.

ZIURTATZEN DU:
_____ jaunak/andreak, _____ NANA duenak, _____ zenbakiarekin erregistratutako fageozko-eskopetarekin, San Juanetako alardean parte hartuko duela, _____ konpainiako kide gisa.

Jasota gera dadin.



Arau berriak

Zer esan digute Gobernu Ordezkaritzatik?



Zer da arma

Beraien ikuspegitik, haientzat arma itxura duen guztia suzko arma edo “arma de fuego” bat izango da.

Kontrola eta isuna

Alardean kontrola ezarriko dute egun horretarako. Isunak egon daitezke, armak ez badaude behar bezala iskribatuta.

Alardea 2024

Zeintzuk dira hurrengo urratsak



Epea

Udalak baimena eskatuko du ekainaren 1ean. Ordurako dena erregistratua eta antolatu izan behar da.

Ordurako lotuta

- Armak erregistratuta
- Parte-hartzaileen zerrenda
- Bakoitzaren eskopeta zenbakia
- Ibilbidea eta salben kokalekua.
- Asegurua

Baimenik ez

Egun horretarako ez badugu dena erregistratuta, ez dugu baimena izango. Aurreko urteetan Legazpin eta Antzuolan debekatu dituzte.

Alardea 2024

Jarrera egokiak eta betebeharrak



Neurriak hartu

Parte-hartzaile guztiek ahalik eta segurtasun-neurri handienak hartuko dituzteberen arma erabiltzerako orduan, besteak beste, gainerako parte-hartzaileen, eta, oro har, pertsona guztien osotasuna bermatzeko.

Erabilera segurua

Parte-hartzaile orok armen erabilera segurua egin beharko du. Konpainia bakoitzeko kapitainek zorrotz zainduko dute arau hau, eta edozein arrisku egon daitekeela uste dutenean, arma erabiltzea debekatu ahal izango dute.

Debekatuta uztea

Parte-hartzaileek erabat debekatuta izango dute beste norbaiti arma uztea, izan tiroak egiteko edo bestelako erabileraren bat emateko.

Alardea 2024

Jarrera egokiak eta betebeharrak



Kargatu gabe

Erabat debekatuta egongo da arma kargatuta eramatea. Parte-hartzaile bakoitzak salba botatzen duen bakoitzean, muniziorik ez dagoela egiaztatuko du.

Munizio arduraduna

Konpainia bakoitzak arduradun bat izendatuko du muniziorako, eta, ahal dela, konpainian bertan esperientzia eta erantzukizun handiena duen pertsona izango da.

Bere eginkizunak

- Aurretik munizioa gorde
- Behar bezala banatzen dela zaindu
- Alardearen ondoren soberakinak jaso

Alardea 2024

Jarrera egokiak eta betebeharrak



Nola eraman

Arma eramaten duen parte-hartzaile orok behar bezala erabili eta eramango du hura, eta, alardetik kanpo, sorbaldan eramango du, deskargatuta.

Ordu muga

Arratsaldeko 20:30etik aurrera, ezin izango da kaletatik zehar armekin ibili. Beraz, guztiak jaso beharko dira ordu horretarako.



Eskerrik asko





Tolosako Alardea

